Iortia
kultur gunea centro cultural

# Iortia,luzerako geldialdia

2020ko udazkeneko abonamenduak

# Iortia, parada y fonda

Abonos otoño 2020

Dena prest dugu bidaia hasteko. Udaberrian izan ezin ziren eta orain izango diren geldialdi batzuei ekingo diegu proposamen berriekin batera, Iortia kulturaz gozatzeko gune segurua bihurtu dugulako. Gure eta egoera berri honetan oso garrantzitsua dela erakutsi duen kulturaren osasunagatik berrasmastu gara.

Fonda zabalik dago, orain zuk aukeratuko duzu zein geldialditan lagunduko diguzun udazken honetan.
Eskuratu gehien gustatzen zaizun abonua, zure kulturarekiko konpromisoarekin hasiko baita bidaia.

Bidaiariak, trenera!

Tenemos ya todo listo para emprender el viaje; retomaremos algunas paradas que no pudieron ser y que ahora sí serán, porque hemos hecho del Iortia un espacio seguro en el que disfrutar de la cultura. Nos hemos reinventado por nuestra salud y la de la cultura, que en estos momentos ha demostrado ser tan importante.

La fonda ya está abierta, ahora tú eliges las paradas en las que nos acompañarás durante este otoño invierno.
Adquiere el abono que más te guste, porque con tu compromiso por la cultura, comenzará el viaje.

¡Pasajeras, pasajeros al tren!

# Zure geldialdiak aukeratu Elige tus paradas








| GAUEKOAK | BURDINA | CALMA! | VIDAS ENTERRADAS | UN POYO ROJO | MAESTRISSIMO |
|---|---|---|---|---|---|
| ira 6 sep, 19:30 | urr 10 oct 19:30 | urr 31 oct, 19:30 | aza 7 nov, 19:30 \| 21:30 | aza 14 nov, 19:30 | aza 28 nov, 19:30 |

**ABONO 6 ABONAMENDUA 68€**

6 ikuskizun + zinema sarrera bat — 6 espectáculos + 1 entrada de cine

**ABONO 5 ABONAMENDUA 57€**

5 ikuskizun + zinema sarrera bat — 5 espectáculos + 1 entrada de cine

**ABONO 4 ABONAMENDUA 45€**

4 ikuskizun + zinema sarrera bat — 4 espectáculos + 1 entrada de cine

**ABONO 3 ABONAMENDUA 34,5€**

3 ikuskizun + zinema sarrera bat — 3 espectáculos + 1 entrada de cine

Abonamenduen salmenta: abuztuak 24
Venta de abonos: 24 de agosto
Abonamendua osatzen duten ikuskizunetarako sarrera solteen salmenta: irailak 7
Venta de entradas sueltas a los espectáculos incluidos en abono: 7 septiembre

1

## GAUEKOAK

KUKAI DANTZA

ira 6 sep, 19:30

Kukai Dantza Iortiara itzuliko da *Gauekoak* antzezlana aurkeztera. Jon Maya Sein dantzari eta koreografoaren proiektu pertsonal eta intimoa da, eta hartan lan egiteko sortzaile eta lagun handiak bildu ditu gauaren beroan.
Izan ere, gaua erortzen denean eta argiak itzaltzen direnean, arima batzuk esnatu egiten dira; solilokio hau baliatu du Mayak dantzari gisa agertokira itzultzeko. Estrenaldia Nafarroan.

Kukai Dantza vuelve al Iortia para presentarnos *Gauekoak*, un proyecto íntimo y personal de su alma mater, el bailarín y coreógrafo Jon Maya Sein, para el que ha reunido a un plantel de grandes creadores y amigos al calor de la noche.
Y es que cuando la noche cae y las luces se apagan, algunas almas despiertan; un soliloquio en el que vuelve al escenario como dantzari. Estreno en Navarra.

50´. 12€/15€

2

## BURDINA

ADRIANA BILBAO

urr 10 oct, 19:30

*Burdina* ikuskizunak langile, migratzaile, gizon eta, batez ere, Penintsulako hegoaldetik lan egitera iritsi ziren emakumeek egindako lana aldarrikatu nahi du. Adriana Bilbaok eta Beñat Axia abeslari eta inprobisatzaileak paisaia industrialaren eta meatzaritzaren unibertsoa baliatuko dituzte tradizio flamenkoa eta euskal kultura uztartzeko.
Eszenaratze indartsua benetan, harrizulatzaile, cante, zuzeneko musika eta dantza osagai nagusi dituena. Ikuskizuna Baionako Scene Nacionalean izan da dagoeneko.

Hierro (Burdina en euskera) es una reivindicación del papel del trabajador, del migrante, de los hombres y, sobre todo, las mujeres que llegaron a trabajar del sur de la Península. El paisaje industrial y el universo de la minería sirven a Adriana Bilbao y al cantante e improvisador Beñat Axiari para el encuentro entre la tradición flamenca y cultura vasca.
Una potente puesta en escena con los barrenadores, cante, música en directo y baile que ya ha pasado por la Scene Nacional de Baiona.

70´. 12€/15€

3

## CALMA!

GILLEM ALBA Y LA MARABUNTA

urr 31 oct, 19:30

"Pixkanaka-pixkanaka, hemen eta orain bizitzeari uzten diogu, eta buruak behin eta berriz eramaten gaitu gure orainean gertatzen ari ez diren milioika gauzetan pentsatzera".
Horrek biltzen du *Calma*! Guillem Albà pailazo eta artistaren seigarren lanaren mamia. Albà Iortiara itzuliko da, urteurreneko festan *Marabunta* lanarekin izugarrizko arrakasta lortu ondoren.
Egileak gizartearen gaixotasun larrienetako bati buruzko hausnarketa egitea proposatzen digu bakarkako lan honetan: estresa. Presak dakartzan ondorioei aurre egiteko errezeta emango digu. Finean, ekintza iraultzailea da, barrea eginarazteaz gain, barrez jarri eta hunkituko zaituena.

Poco a poco, dejamos de vivir en el aquí y ahora, y la cabeza se nos lleva una y otra vez a pensar en millones de cosas que no están pasando en nuestro presente". Este es el origen de *Calma*!, el sexto trabajo del payaso y artista Guillem Albà, que vuelve a Iortia tras ponernos en pie en fiesta de aniversario con *Marabunta*.
Un solo que repiensa desde el humor una de las enfermedades sociales más importantes: el estrés. Una receta contra las prisas; todo un acto revolucionario en el que no solo sonreirás sino que te reirás y te emocionas desde el primer momento.

60´. 12€/15€

4

## VIDAS ENTERRADAS

L'OM IMPREVIS, TEATRO DEL TEMPLE, TEATRO CORSARIO, MICOMICÓN

aza 7 nov, 19:30 | 21:30

L'Om Imprebisek, Teatro del Templek, Micomicón Teatrok eta Teatro Corsariok hainbat biktima, lekuko eta adituren testigantzak hurbilduko dizkigute antzezlana honetan, Gerra Zibilean eta frankismo garaian hildakoen oroimen lurperatua berreskuratzeko. Sei bakarrizketa kateatuta antzeztuko dituzte, talde txikiak lekukotza batetik bestera eramanez. Kontakizunak ahapeka kontatzen dituzte, horiek helarazteko erabiltzen den intimitate-giroa errespetatuz. Ser irrati-katearen *A vivir que son dos días* irrati-serialean oinarritutako ezinbesteko ikuskizuna da.
Antzezlanak **2018ko Espainiako Errege Kazetaritzako Nazioarteko Saria** jaso zuen.

L'Om Imprebís, Teatro del Temple, Micomicón Teatro y Teatro Corsario han preparado una versión teatral que nos acercan a las víctimas, testigos y especialistas comprometidos en el rescate de la memoria enterrada de las personas asesinadas durante la guerra Civil y el Franquismo. Seis monólogos encadenados que se representan, respetado el ambiente de intimidad en el que se contaban estos relatos a media voz, en un itinerario que traslada a pequeños grupos de testimonio en testimonio. Un espectáculo imprescindible basado en el serial radiofónico *A vivir que son dos días* de la Cadena SER y que ha sido reconocido con el **Premio Internacional de Periodismo Rey de España 2018.**

70´. 12€/15€
Edukiera mugatua | Aforo reducido: 60

5

## UN POYO ROJO

aza 14 nov, 19:30

*Un poyo Rojo* aldagela batean dauden bi gizon aurkezten dizkigu, biek aurre egin, borrokatu eta elkar seduzitzen dute, zuzeneko irratsaio baten konpainian.
Ikuskizun dotore, dibertigarri eta harrigarria da, eta hartan akrobazia, dantza eta kimika probatuko dira Argentinako bikote honen eskutik. 2009an estreinatu zutenetik, mundu osoan zehar antzeztu dute, besteak beste, Avignongo eta Edinburgoko jaialdietan. Muntaia kultuko ikuskizun bilakatu da.

*'Un Poyo Rojo'* presenta a dos hombres y una radio en directo en un vestuario, que se enfrentan, se desafían, combaten y se seducen.
Un espectáculo elegante, divertido y sorprendente en el que se pone a prueba la acrobacia, la danza y la mímica de la mano de este dúo argentino que desde que estrenó en 2009 lo ha representado por medio mundo, incluidos los festivales de Aviñón y Edimburgo; un montaje que se ha convertido en un espectáculo de culto.

60´. 12€/15€

6

## MAESTRISSIMO (Pagagnini 2)

YLLANA

aza 28 nov, 19:30

Yllanaren ikuskizun komiko musikal berriak Pagagniniren lekukoa jaso eta beste ikuspegi bat ematen dio umorearen eta musika klasikoaren arteko harremanari.
Barrokoko harizko laukote zoroenak musika eta komedia satirikoa uztartzen ditu publiko guztientzat pentsatutako antzerki musikaleko ikuskizun honetan. Laurak prest daude barrea eginarazteko eta belarri zorrotzenak asetzeko.

El nuevo show cómico-musical que recoge el testigo de Pagagnini y reinventa la relación entre el humor y la música clásica.
El cuarteto de cuerda más alocado del barroco, un concierto y una comedia satírica en un espectáculo de teatro musical pensado para todos los públicos, listo para hacer reír y satisfacer a los oídos más exigentes.

90´. 12€/15€

**Goza ezazu arduraz**
**Disfruta con responsabilidad**

Informazio eguneratua
Nuestra información actualizada

Udazkeneko kultur agenda Iortia Kultur Gunean duzu eskura
La agenda cultural de otoño está disponible en el Centro Cultural Iortia

## iortiakultura.com


948 564272 | 676 017 519 | iortia@altsasu.net
Frontoiko zehb. / Trav. Frontón - 31800 - Altsasu-Alsasua



Laguntzen dute/Colaboran:
ALTSASUKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE ALSASUA
Gobierno de Navarra